

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OKONDOKO UDALA

#### **Argiteria publikoaren sarea berritzeko eta egokitzeko lanak kontratatzea**

Udalbatzak, 2016ko irailaren 20ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, Okondoko argiteria publikoaren sarea berritzeko eta egokitzeko lanen kontratazioa arautzen duten administrazio klausula berezien eta betekizun teknikoaren agiriak onartu zituen. Horiek horrela, kontratazioa iragartzen da, honako baldintza hauekin:

1. Kontratuaren xedea: Okondoko argiteria publikoaren sarea berritzeko eta egokitzeko lanak egitea.
2. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era:  
Izapidetzea: presazkoa.  
Prozedura: irekia.  
Esleitzeko era: esleipen irizpide hauen arabera:  
Eskaintzarik merkeena: 51 puntu.  
Eskaintza tekniko onena: 19 puntu.  
Agirian onartutako hobekuntzak: 30 puntu.
3. Lizitazioaren oinarriko aurrekontua: 106.060,39 euro, BEZa barne.
4. Behin-behineko bermea: 1.753,00 euro.
5. Behin betiko bermea: esleipenaren ehuneko 5, BEZa aparte.
6. Espedientea aztertzea eta argibideak jasotzea: Okondoko Udalaren bulegoetan (Zudubiarte 2, 01409 Okondo; telefonoa: 945898023) eta kontratzailearen profilean.
7. Eskaintzak aurkeztea: zortzi egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken egun hori larunbata edo jaieguna bada, epea hurrengo egun baliodu-nera arte luzatuko da.
8. Aurkezteko lekua: Okondoko udaletxeko bulegoetan, eskaintzak aurkezteko azken egunera arte.

Okondo, 2016ko irailaren 20a

*Alkatea*

*SERGIO TATO EGUREN*